

Neurrira egindako erretiroak

Urtarrilaren lehen egunaz geroztik indarrean da erretiroa 65 urtetik gora atzeratuta gehiago kobratzeko legea. Beraz, aurrerantzean, abian da neurrira egindako erretiroa. Orain arte, salbuespen bakan batzuetan izan ezik, ezin zen legez erretreta adin horretatik aurrera atzeratu.

DANIEL UDALAITZ



Geroago erretiratzeko abantailak eskainiko ditu Espainiako Administrazioak eta lehenago erretiratzeko zailtasunak.

ESPAINIAKO ADMINISTRAZIOAK, Patronalak eta Sindikatuek Gizarte Segurantzako Legea berraztertzea erabaki zuten pasa den urtean. Lege horren baitan, besteak beste, pentsioa %15eraino handitzeko aukera aurreikusten da erretiroa 70 urtera arte atzeratzen dutenentzat. Berraztertze horrek pasa den azaroaren 22an jaso zuen Diputatuen Kongresuaren behin betiko onespina eta

2008ko urtarrilaren lehenean sartu zen indarrean. Euskal Herriak Gizarte Segurantza propiorik ez duenez, Espainiako eta Frantziako erretiro sistemei loturik daude langile euskaldunak.

Espainiako Estatuan erretiroa hirurogeita hamar urtetik gora hartzeko aukerarekin zera eskaini diete langileei: neurrira egindako erretiroa. Orain arte, salbuespenak sal-

buespen, nahitaezkoa zen gehienez ere 65 urterekin erretiroa hartzea. Hala, alor honetan Europako beste herri batzuek hartutako bidera lerratu da Espainiako Estatuare.

Hona legeak dakarren neurri nagusia: 66 urterekin edo gehiagorekin erretiroa hartzen duten langileei %2 handituko zaie pentsioa, 65 urtetik gora kotizatutako urte bakoitzeko. Portzentaje hori %3ra igoko da 40

Txandakako lan kontratua gogortu egin da

Txandakako lan kontratuaren erreformak –hau ere urtarilaren 1az geroztik da indarrean– erretiro partzial aurreratua lortzeko baldintzak gogortzea ekarriko du pixkanaka eta etengabe. Langileak edo pertsonala modu errazagoan berritzeko formula da txandakako lan kontratua. Hego Euskal Herrian milaka langile erabili dute kontratu eredu hau 60 urtetik aurrera erretiroa hartzeko, 65 urte betetzean jasoko duten pentsioan inolako murrizketarik gabe. 1999an indarrean jarri zenetik Hego Euskal Herriko 30.000 langile baino gehiagok baliatu dute. 2007an, esaterako, 5.000 euskal herritarrek onartu dute lan kontratu hori.

Hauek dira txandakako lan kontratu honen ezaugarri nagusiak: gaur egun arauturik dagoen bezala, langabe bakoitzaren ordezkapena lanaldiaren %85ean egiten da, gutxienez. Erretiratu partzialak bete behar du gainerakoa, hau da enpresak ordaintzen dion gainerako %15 berak egin behar du lan. Pentsioa, halakoetan, oso-osorik jasotzen da

65 urte betetzean. Adin horretara arte jasotako pentsioa utzitako lanaldiaren proportzio berekoa izaten da. Ordezkapena egiten duenak ordezkatuaren lanpostu bera bete behar du, edo haren antzekoa.

Baldintzak, ordea, gogortu egin dira orain. Hala, kontratu mota honetara biltzeko, sei urteko antzinakotasuna beharko da enpresan, nahiz eta baldintza hau pixkanaka ezarriko den. Aurten bi urteko antzinakotasuna eskatuko da, eta igarotzen den ekitaldi bakoitzeko bat gehiago. Erretiro partzial hau hartzeko adina ere atzeratu egin da: lehen 60 urte ziren eta orain 61 izango dira, nahiz eta 2008an 60 urte eskatuko diren. Igarotzen den ekitaldi bakoitzeko bi hilabete gehiago atzeratuko da erretiro partzial hori hartzeko adina. Gaur egungo %15 horren ordezkapena lanaldiaren %25 bete beharko dute, gainera, erretiro partziala hartzen dutenak. Azkenik, 30 urte eduki beharko ditu kotizatuta, eta ez 15, gaur egun bezala; eta aparteko ordainsariak ere ez dira kontuan hartuko.

urteko kotizazio-ibilbidea egiaztatuz gero. Halaxe osatuko litzateke ares-tian aipatutako %15 hori. Arauak zehazten du, gainera, pentsio handiena gaingiditzen den kasuetan, oroharreko prezioan urtean kopuru bat jasotzeko eskubidea onartuko dela; kotizatutako urteen arabera izango da, hain zuzen, zenbateko hori. Arau hauen berri zehatz-mehatz jakin nahi duenak eskueran dauka Gizarte Segurantzaren webgunea: www.seg-social.es. Norberaren egoera zein den zehazki jakiteko, ordea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala edo zein bulegotara jotzea da onena. Han argituko dizkiote zalantza guztiak.

Egiazko hamabost urte kotizatzen, pentsioa eskuratu ahal izateko

Gizarte Segurantzako arau berrien artean pentsioen gaiari loturik beste neurri garrantzitsu bat ere hartu da: erretiroko pentsioa eskuratzeko nahitaez kotizatu beharreko epeari dago-

kiona. Kasu honetan, neurria gaitzagoa eta garestiagoa da gaur egungo langile eta etorkizuneko pentsioduentzat. Izan ere, luzatu egin da erre-

Urtarilaz geroztik, 65
urtetik gorakoek ere egin
ahal dute lan hala nahi
badute; pentsioa %2
handitzeko aukerarekin

tiroa hartzeko nahitaez kotizatu beharreko gutxieneko denbora tartea. Orain arte 15 urtekoa zen gutxieneko epe hori. Eta araudi berriak beste xehetasun bat ere ekarri du: aparteko ordainsariak jada ez dira kontuan hartuko. Alegia, orain arte 4.700 egun kotizatzearekin aski zen gutxieneko epe hori osatzeko, baina urtarilaz geroztik 5.475 egun kotiza-

tu beharko dira eskatutako hamabost urte horiek egiazkoak izateko.

Erretiroa hartzeko adina gutxitzeko –eta erretiro partziala edo erretiro aurreratua hartu ahal izateko– koefizienteekin zerikusia duten beste aldaketa batzuk ere jasotzen ditu arau berriak. Hala, erretiroa hartzeko adina gutxitzen duten koefiziente berriak sartu dira indarrean lan “nekagarri, toxiko, arriskutsu eta osasunerako kaltegarrientzat”, baita ezintasunen bat duten pertsonentzat ere. Horretarako, beharrezkoa izango da, aurrez, dagozkion azterketa guzti-guztiak egitea; kotizazio aldaketak kontuan hartu beharko dira eta ezingo da inolaz ere 52 urte baino gutxiagorekin hartu erretiroa.

Gainera, erretiro partziala eskuratzeko baldintzak bateratu egin dira erretiro aurreratua hartzeko baldintzekin. Aurreratua hartzeko nahitaezkoa da 61 urte beteak izatea (60 ziren lehen), 30 urte kotizatuta edukitzea eta enpresan sei urteko antzinakotasuna izatea. Azken bi baldintza horiek ez ziren eskatzen lehen erretiro partzialetan. 1967ko urtarilaren 1a baino lehenagoko mutualistentzat, 60 urteko adina mantentzen da. Azkenik, 2002ko urtarilaren 1aren aurretik kaleratze baten ondorioz eta 35 urte kotizatu ostean erretiro aurreratua hartu zuten haien guztien pentsioa ere hobetu egingo da.

Alarguntzako pentsioak baita izateko bikoteentzat ere

Gizarte Segurantzako Legearen erreformak alarguntzako pentsioentzat ere hainbat hobekuntza biltzen ditu. Hala, esaterako, ezkonduen eta izatezko bikoteen baldintzak parekatu egin dira alarguntzako pentsioari dagokionean. Pentsio hori jasotzeko eskubidea onartuko zaie –gutxienez bost urtez– elkarrekin bizi izan direla egiaztatzen dutenei edo elkarrekin seme-alabak dituztenei. Heriotzagatik laguntzari dagokionean ere ezkonduen eskubide bera izango dute izatezko bikoteek, eta laneko istripuen edo laneko gaixotasunen ondorioz gertatutako heriotzengandik ere oroharreko prezioan kalteordaina jasotzeko eskubide bera izango dute. ■